



TOLOSA  
UDALA

## IRUZURRA KONTROLATZEKO ORGANOA

## 1. Izendapena

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa eratuko da ziurtatzeko behar bezala aplikatzen direla Udalean iruzurraren aurkako neurriak. Ahalik eta eraginkorrena izan dadin, diziplina anitzeko talde batek (SEMeko funtsen kudeaketan eta/edo exekuzioan inplikaturako unitate, sail, zerbitzu edo arloetako kideek) osatuko du Organoa eta kide horien artean parekidetasuna errespetatuko da bertan. Zehazki, honako hauek osatuko dute:

- Udaleko idazkari nagusiak edo hark izendatutako saileko teknikariak.
- Udaleko kontu-hartzaileak edo hark izendatutako saileko teknikariak.
- Diruzainak.
- Kontu-hartzailetzako teknikariak.
- Kontratazio-teknikariak.
- Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak, Iruzurra Kontrolatzeko Organoaren idazkari gisa jardungo duena.
- Era berean, gonbidatuak izango dira beste udal-langile batzuk, proiektua eta/edo azpi-proiektua kudeatzen duten organoetako ordezkariak, dagokion bileraren irismenaren arabera deitzen direnak, edo Organoak egokitzat jotzen duen beste edozein pertsona.

Iruzurraren aurkako organoak irregulartasunaren egiazkotasuna eta zehaztasuna egiaztatuko ditu, eta entzunaldi-izapidea emango die kaltetu eta lekuko guztiei, eta beharrezkotzat jotzen dituen eginbide guztiak egingo ditu.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak independentziaz eta inpartzialtasunez jokatu beharko du, eta ahalik eta ardura eta gaitasun profesional handienarekin gauzatu beharko du bere lana. Horretarako, Iruzurra Kontrolatzeko Organoak bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango dio Udaleko sail eta prozesu bakoitzari, errekeritutako pertsonaren hierarkia-maila edozein dela ere.

## 2. Eginkizunak

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Zuzentzea eta gainbegiratzea Politika honen garapena, ezarpena, funtzionamendua, eraginkortasuna eta betetzea.
2. Sustatzea iruzurrezko ekintza eta jokabideen aurrean "zero tolerantzia" printzipioan oinarritutako prebentzio-kultura.
3. Abian jartzea arriskuen mapa bat, bai eta zaintza eta kontrolerako planak eta prozedurak ere.

4. Proposatzea Udalean iruzur, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko arau eta barne-kontrol egokiak onartzea.
5. Antzemandako arriskuen aldizkako ebaluazioa eta arrisku bakoitzari aplikatu beharreko kontrolak egitea
6. Politika hau modu loteslean interpretatzea, eta ebaztea haren edukari, aplikazioari edo betetzeari buruz sortzen zaizkion kontsultak edo zalantzak.
7. Salaketen kanala kudeatzea, hari lotuta egindako jarduketa guztien erregistroa eramanez dokumentuak kudeatzeko sistema baten bidez, sistemaren funtzionamendua azkar frogatu eta gerta daitezkeen akatsak detektatu ahal izateko.
8. Hastea eta zuzentzea iruzurrezko jokabidea ekar dezakeen edozein gertakariri buruz egiten diren barne-ikerketak, bai eta organo eskudunei dagozkion zehapenak ezartzea proposatzea ere. Ikerketarekin lotura duten unitateei egoki irizitako informazio guztia eskatzea, behar bezala azter dezaten.
9. Alkateari hasitako espedienteetan lortutako ondorioen berri ematea
10. Urteko memoria bat egitea, Iruzurra Kontrolatzeko Organoak beren eskumenen esparruan egindako jarduerak jasoko dituen, eta horren berri ematea osoko bilkurari.
11. Alkateak eman diezaiokeen beste edozein eginkizun.
12. Politika honetan egoki diren aldaketak proposatzea.
13. Udaleko gainerako langileak kontzientziaztea eta prestatzea, Giza Baliabideetako Azpisailarekin eta Europako funtsak koordinatzeko unitate funtzionalarekin lankidetzan, prestakuntza-plangintzari dagokionez.

### **3. Iruzurra Kontrolatzeko Organoaren funtzionamendurako barne-araudia**

Iruzurra Kontrolatzeko Organoari esleitutako eginkizunak garatzeko, PRTR indarrean dagoen bitartean, gutxienez, hiru hilabetean bilduko dira Organoko kideak. Hala ere, premiazkoa den ez-ohiko deialdiak egiteko aukera izango du Organoko edozein kidek, urgentziazko egoera batean berehalako erabakia hartu behar den kasuetan. Hala nola arau-aldaketak, neurri zuzentzaileen proposamenak, hautemandako kalteberatasun salaketak...

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak hirugarrenen laguntza eta aholkularitza eskatu ahal izango du bere eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen duenean, eta ekimen-askatasuna izango du, ikerketa bat hasi ahal izateko aldez aurreko salaketarik edo nagusi baten agindurik behar izan gabe, betiere, edozein arrazoirengatik komenigarritzat jotzen badu.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak isilpean gordeko ditu bere eztabaida eta erabakiak, eta, oro har, ez du jakinaraziko bere kargua betetzean eskura duen informazio, datu, txosten edo aurrekaririk, ez eta bere onurarako edo hirugarrenen onurarako erabili ere.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoaren konfidentzialtasun-betebeharrak bere horretan jarraituko du, baita kargua utzi badu ere.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoa interes-gatazkan badago, horren berri eman beharko dio gobernu-organoari, eta hark izango du eskumena horren inguruan sor daitezkeen zalantzak edo gatazkek ebazteko.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak edozein egoera prebenitzeko eta antzemateko barne-kontrolako sistema proposatuko du, planaren neurrien jarraipen-txostenak egingo ditu eta, hala badagokio, neurri zuzentzaile egokiak proposatuko ditu eta behar dituen aholkularitza edo txostenak eskatu ahalko ditu. Iruzuraren aurkako neurrien ezarpena bermatzeko, sail edo zentro kudeatzaile guztiek zazpi (7) lan eguneko epean eskatzen dieten informazio- eta lankidetzak-erateko betebeharra dute.

Iruzurra Kontrolatzeko Organoak kudeaketa-sistema informatikoetan dagoen informazioa kontsultatzea eta aholkularitza zein laguntza teknikoa ematea eskatu ahalko du.